



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / El Alcalde Andoni Alvarez Lete

Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu	Marta Lasa Goñi
	Xabier Fondón Pajares
	Garazi Usandizaga Zubiria
	Iosu Mateo Turrillas
	Haizea Barandiaran Zubillaga
	Diego Barrasa Ruiz
PSE-EE	Larraitz Arriola Larrarte
	José Luis Verdasco Gutierrez
	Ascensión Parrón Peguero
	Aritz Alkain López
	María Belén Moreno Méndez
EAJ-PNV	José Antonio Fernández Da Purificação
	Imanol Goenaga Egibar
	Idoia Mikelez Alonso
Elkarrekin Podemos	Mª Sagrario Ruiz Fernández
	Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia	00000002
Eguna	2026/02/26
Hasiera	19.00
Amaiera	20.19

Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Myriam Lizaso Arruabarrena – **Kontuhartzailea**

Gai Zerrenda:

Orden del Día:

Xedapenak

1. Onartzea, hasierako izaeraz, Andoingo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berariazko ordenantzaren aldaketa proposamena.
2. Udal Musika Eskolako arautegiaren behin betiko onarpena.
3. Lanpostu zerrendaren aldaketa.
4. Gastuak judizioz kanpo aitortzeko proposamena.
5. 2025.12.31ko Kontu-hartzailearen txostena.
6. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren 50. urteurrenari buruzko mozioa, Hurria Sahara elkarrekin aurkeztua.
7. EAJ/PNV udal taldeak 2026.02.16an

Parte Dispositiva

- 1.- Propuesta aprobación inicial de la modificación de la ordenanza específica reguladora de la concesión de subvenciones para actividades de promoción del euskera en el municipio de Andoain.
- 2.- Aprobación definitiva del reglamento de la Escuela Municipal de Música de Andoain.
- 3.- Modificación de la relación de puestos de trabajo.
- 4.- Propuesta de reconocimiento extrajudicial de gastos.
- 5.- Informe de la Interventora de 31.12.2025.
- 6.- Moción sobre el 50 aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática presentada por la asociación Hurria Sahara.
- 7.- Moción presentada por el grupo municipal EAJ/PNV el 16.02.2026 relativa a regulación



Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2026/02/26

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 26/02/2026

aurkeztutako mozioa, Andoainen
autokarabanen aparkalekuak erregulatzeari
buruzkoa.

del estacionamiento de autocaravanas en
Andoain.

Kontrola

8. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2025/3316 zenbakidunetik 2025/3344 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 2026/1. aktatik 2026/5 aktara.
9. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 8.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 2025/3316 y la nº 2025/3344 y de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local, en concreto los comprendidos entre el acta nº 2026/1 al acta nº 2026/5.
- 9.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo, arratsalde on eta ongi etorri otsaileko ohiko udalbatza honetara. Besterik gabe hasiera emango diogu udalbatzari.”

1. Onartzea, hasierako izaeraz, Andoingo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berariazko ordenantzaren aldaketa proposamena.

Kontuan harturik Andoingo Udalbatzaren Bilkurak, 2022ko uztailaren 22an egin zuen batzarrean, hasierako onespina eman ziola Andoingo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berariazko ordenantzari, eta ordenantza horren testu osoa, berriz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022ko irailaren 29an argitaratu zela behin betikoz.

Kontuan harturik Andoingo Udalbatzaren osoko bilkurak, 2024ko irailaren 26an eta abenduaren 26an ordenantzaren beste aldaketa batzuk onartu zirela.

Kontuan harturik, ordenantza honen bost urteetako ibilbidea aztertu ondoren, hainbat aldaketa egiteko beharra ikusi dela, egun indarrean den dirulaguntza-lerro bat kentzea eta beste bi lerro berri sortzea.

Alde batetik, IV. ataleko dirulaguntza-lerroa kentzea proposatzen da, hau da, erakunde ofizialek antolatutako unibertsitate mailako uda ikastaroetarako dirulaguntza-lerroa. Kontua da ordenantza indarrean egon den urte hauetan guztietan Udalak ez duela ezta eskaera bat ere jaso dirulaguntza-ildo honetarako. Saiakera bat egin zen irisgarriagoa izateko adinaren muga kenduta baina, halere, jarraitu genuen eskaerarik gabe.

Bestalde, ikusita bertsolaritza euskal kulturaren eta hizkuntzaren adierazpen garrantzitsua dela, euskararen erabilera sustatzen duela, ahozkotasuna aberastu eta gazteei eremu informaletan hitz egiteko tresnak eskaintzen dizkiela, hizkuntzaren transmisioa bermatuz, ordenantzan bertso saioak antolatzeko dirulaguntza-lerro berria sortzea proposatzen da. Egia da egun, herrian bertso eskola antolatzeko eta bertsolaritzaren inguruko ekimenak antolatzeko, Udalak Punttuka Bertso Eskola elkartearekin dirulaguntza hitzarmena urtero sinatzen badu ere, herriko beste elkarteek ere, bertso saioak antolatuz gero, dirulaguntza jasotzeko aukera bermatu behar zaiela, horregatik lerro berri hau sortzeko eskaera.

Era berean, kontuan harturik euskararen normalizaziorako funtsezkoa dela bizitzaren alor guztietara zabaltzea bere erabilera, eta horietako bat izan daitekeela gidabaimena eskuratzeko formazioa eta azterketak euskaraz egiteko aukera izatea, batez ere gazteen artean, Buruntzaldeko udalok, 2010 urteaz geroztik, gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu duten eskualdeko herritarren artean sari batzuk zozketatu izan ditugu, herri bakoitzean diren autoeskolen



kopuruaren arabera, Andoainen, egun, 2 sari. Halere, ekimen honetan parte hartu duten herritarren kopurua jaisten joan da azkeneko 4 edo 5 urteotan eta 2024an, adibidez, andoaindar bakarrak hartu zuen parte zozketan, beraz, sarietako bat eman gabe geratu zen. Hori dela-eta, Buruntzaldeko euskara zerbitzuok egoera aztertu eta egokiagoa ikusi dugu orain arteko zozketa dirulaguntza zuzen bihurtzea, hau da, gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen duten herritar guztici diruz laguntzea, eta horretarako dirulaguntza-lerro berria sortzea proposatzen da.

Ikusirik, 2025.12.30ean Euskara lansaileko arduradunak egindako txostena.

Ikusirik, 2026.02.10ean Udal Idazkariak egindako txostena, halaber ikusirik, 2026.02.6an Berdintasun teknikariak egindako txostena.

Ikusirik, Euskararen Normalizaziorako Batzorde Irizpenemalearen 2026/02/18 datako irizpena.

Lasa andreak, Euskararen Normalkuntzarako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo, arratsalde on denoi. Ordenantza honen bost urteetako ibilbidea aztertu ondoren, hainbat aldaketa egiteko beharra ikusita, egun indarrean den dirulaguntza lerro bat kentzea eta beste bi lerro sortzea proposatzen da. Alde batetik, laugarren ataleko diru laguntza lerroa kentzea proposatzen da, erakunde ofizialek antolatutako unibertsitate mailako eta uda ikastaroetako diru laguntza lerroa, zehazki.

“Indarrean egon den urte guzti hauetan, udalak ez du ezta eskaera bat jaso. Saiakera bat egin genuen irisgarriagoa izateko adinaren muga kenduta, baina hala ere, jarraitu genuen eskaerarik jaso gabe.

“Bestalde, ikusita bertsoaritzaren euskal kulturaren eta hizkuntzaren adierazpen garrantzitsua dela, euskararen erabilera sustatzen duela, ahozkotatuta aberastu eta gazteci eremu informalean hitz egiteko tresnak eskaintzen dizkiela, hizkuntzaren transmisioa bermatuz. Ordenantza honetan bertso saioak antolatzeko diru laguntza lerro berria proposatzen dugu.

“Eta bukatzeko, Buruntzaldeko udalok 2010 urteaz geroztik gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu duten eskualdeko herritarren artean sari batzuk zozketatu izan ditu, herri bakoitzian diren autoeskolen kopuruaren arabera. Andoingo kasuan, bi sari. Hala ere, partaidetza jeisten doala ikusita, egoera aztertu ondoren, egokigoa ikusi da orain arteko zozketa diru laguntza zuzena bihurtzea. Hortik dator diru laguntza lerro berriaren sorrera proposamena.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo eta arratsalde on. Bueno, desde el Grupo Municipal Socialista vamos a apoyar la modificación de la ordenanza. En primer lugar, porque se recogen dos reivindicaciones que hemos ido trasladando en las diferentes comisiones. Una era la creación de la línea de subvención para la organización de actos de bertsoaritzaren y bueno, la siguiente, es verdad que, como ha comentado la Concejala de Euskera el año pasado se hizo la intentona, propusimos quitar el límite de edad de los cursos de la UNED y hacer este intento, y vemos que se elimina, y por lo tanto, vamos a apoyar la ordenanza.

“Barkatu, y se me olvida decir que este es un claro ejemplo de lo que venimos diciendo y lo que comentamos también en el pleno de presupuestos. Un claro ejemplo de lo que hay que hacer con las ordenanzas, cuando llega un momento en el que no se está destinando los recursos para ello, cambiarlas, que las ordenanzas se pueden cambiar, y este es el ejemplo. Y esperamos que muchas ordenanzas de servicios sociales que año tras año se van bajando o, de urbanismo, y que no se hace el ejercicio de cambiar las ordenanzas, sirva de ejemplo para ello.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Onestea, hasierako izaeraz, Andoingo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berriazko ordenantzaren aldaketa ondoren zehazten denaren arabera:



I. atalean, Xedapen orokorreari dagokienez, honako aldaketak egiten dira:

• Aldatu egiten da xedea jasotzen duen 1. artikulua bigarren paragrafoa, honela jasota zegoena:

“Dirulaguntzak ondorengo atalen baterako eskatu ahal izango dira:

• Euskara ikasteko eta hobetzeko
• Aisialdiko begirale eta zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroak eta hezitzaileen berariazko prestakuntza egiteko

• Erakunde ofizialek antolatutako unibertsitate mailako uda ikastaroetarako
• Kanpo eta barruko hizkuntza paisaia euskaraz jartzeko
• Webguneak eta programa informatikoak euskaraz jartzeko.
• Udalerriz gairako eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntzak”

Behin aldatuta, honela geratuko da:

“Dirulaguntzak ondorengo atalen baterako eskatu ahal izango dira:

• Euskara ikasteko eta hobetzeko.
• Aisialdiko begirale eta zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroak eta hezitzaileen berariazko prestakuntza egiteko.

• Kanpo eta barruko hizkuntza paisaia euskaraz jartzeko.
• Webguneak eta programa informatikoak euskaraz jartzeko.
• Udalerriz gairako eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntzak
• Andoingo elkarteek bertso saioak antolatzeko.
• Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gairatu duten herritarrentzat.”

• Aldatu egiten da xedea jasotzen duen 4. artikulua bosgarren paragrafoa, honela jasota zegoena:

“I., II., III., IV., V. eta VI. ataletan urteroko deialdian ezarritako diru kopuru osoa eskatzaileei dagokien dirulaguntza ordaintzeko nahikoa izango ez balitz, gehieneko ehunekoak jaitsi egingo lirarteke baldintzak betetzen dituzten eskabide guztietara iritsi arte”

Behin aldatuta, honela geratuko da:

“II, III, V, VI, VII, VIII eta IX. ataletan urteroko deialdian ezarritako diru kopuru osoa eskatzaileei dagokien dirulaguntza ordaintzeko nahikoa izango ez balitz, gehieneko ehunekoak jaitsi egingo lirarteke baldintzak betetzen dituzten eskabide guztietara iritsi arte”

KENDU egiten da IV. atala, “erakunde ofizialek antolatutako unibertsitate mailako uda ikastaroetarako” izeneko, osoa, 15. artikulutik 18.era.

ERANTSI egiten da, VIII. atal gisa, “Bertso saioak antolatzeko dirulaguntzak” izeneko dirulaguntza-lerroa, honako edukiarekin:

33. artikulua.- Xedea

Andoingo Udalak herriko elkarteek edo herrian egoitza duten elkarteek antolatzen dituzten bertso saioak diruz lagunduko ditu.

34. artikulua.- Onuradunak eta bete beharreko berariazko baldintzak

Dirulaguntza hauen onuradunak izango dira 2. artikuluko eta ondorengo baldintza hauek betetzen dituzten elkarteak:

- Andoingoa izatea edota Andoainen egoitza bat izatea.
- Bertso saioa Andoainen egitea.
- Parte hartzen duten bertsolarien erdiak, gutxienez, emakumezkoak izatea.
- Ekitaldia irekia izatea, edonor joateko modukoa, nahiz eta ordaindu behar.

35. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak.

Dirulaguntza-eskaerak aurkezteko epea urtero argitaratzen den deialdian zehaztuko da eta honako agiriak aurkeztu beharko dira Udaleko egoitza elektronikoaren bidez:

- Saioaren ezaugarriak biltzen dituen txostena: arrazoia, data, lekua, parte-hartzaileak,



zabalkunderako erabilitako euskarriak ...

- Saioa gauzatzeko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena edota likidazioa.
- Edozein kasutan, behin saioa gauzaturik, elkarteak bi hilabeteko epean aurkeztu beharko du diru-sarreraren eta gastuen likidazioa, izandako gastuen zurigarriekin batera.

36. artikulua.- Dirulaguntzaren ezugarriak

Udalak diruz laguntzeko bakarrik hartuko du kontuan bertsolarien jardueraren gastua eta, gehienez ere, gastu hori estaltzeko adina dirulaguntza jasoko du elkarteak.

Dirulaguntza ordainduko da behin ekimena burututa eta dagozkion txostena, sarrera eta gastuen likidazioa eta izandako gastuen zurigarriak aurkeztuta

Urteroko deialdian jasoko da dirulaguntza-ildo honetarako erabiliko den diru-kopurua, eta kopuru hori banatuko da aurkezten diren eskaeren artean, era proportzionalan.

ERANTSI egiten da, IX. atal gisa, "Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu duten herritarrentzako dirulaguntzak" izeneko dirulaguntza-lerroa, honako edukiarekin:

37. artikulua.- Xedea

Andoingo Udalak ziklomotorreko (AM), motozikletako (A1 eta A2) eta autoko (B) gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu duten andoaindarrei diruz lagunduko die.

38. artikulua.- Onuradunak eta bete beharreko berariazko baldintzak

Dirulaguntza hauen onuradunak izango dira 2. artikuluko eta ondorengo baldintza hauek betetzen dituzten herritarrak:

- Andoainen erroldatuta egotea.
- EAEko autoeskola batean matrikulatuta egotea.
- Gidabaimena eskuratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu izana, izan ziklomotorreko (AM), motozikletakoa (A1 eta A2) eta autokoa (B).

39. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak.

Dirulaguntza-eskaerak aurkezteko epea urtero argitaratzen den deialdian zehaztuko da eta honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- Eskabide normalizatua, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Matrikula EAEko zein autoeskolatan egin den egiaztatzen duen agiria.
- Matrikula ordaindu izanaren agiria.
- Trafiko Zuzendaritza Orokorraren ziurtagiria, azterketa teorikoa euskaraz egin dela egiaztatzen duena.

40. artikulua.- Dirulaguntzaren ezugarriak

Urteroko deialdian jasoko da dirulaguntza-ildo honetarako erabiliko den diru-kopurua, baita eskatzaile bakoitzak jasoko duena ere.

Herritarrek dirulaguntza-lerro honetako dirulaguntza bat baino ezingo dute eskuratu urtean.

2.- Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udal web-orrian argitaratuz, 30 eguneko epeaz, interesadunek espeditentea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espeditentea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu ordenantza behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

2. Udal Musika Eskolako arautegiaren behin betiko onarpena.

Ikusirik Andoingo Udal Musika Eskolako Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia hasierako izaeraz onartzen duen 2025eko urriaren 30a(e)ko Osoko Udalbatzaren erabakia.

Kontuan izanik jendaurrean egon den bitartean, MIRIAM ULANGA ELORZ andk. alegazioak aurkeztu zituela 2025/12/02an (Erregistro zk.: 2025-11011).

Ikusirik, Hezkuntza eta Kultura Teknikariak 2026ko otsailaren 10ean egindako txostena.



Ikusirik, Idazkariak 2026ko otsailaren 11n egindako txostena.

Ikusirik, Herritarrak Batzorde Irizpenemaileko 2026/02/17 datako irizpena.

Jarraian, Lasa andreak, Hezkuntza eta Kultura Zinegotzi Ahaldunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Andoingo Udal Musika Eskolako antolamendu eta funtzionamentu araudia hasierako izaeraz, 2025eko urriaren 30eko osoko udalbatzan onartu zen arren, jende aurrean egon zen bitartean, alegazio bat aurkeztu zen abenduaren bian, zehazki, Kultura eta Hezkuntza teknikariak, alde batetik, eta idazkariak egindako txostenarekin, bestetik, alegazio batzuei onespina emantzaie eta beste batzuk ezeztatu dira. Ondorioz, araudi berriaren behin betiko onartzea proposatzen dugu gaur.

“Behin araudia onartuta, hurrengo urratsa zuzendaritza taldeko aukeraketa prozesua martxan jartzea litzateke.”

Gaia eztabaidaran jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- MIRIAM ULANGA ELORZ andreak aurkeztutako alegazio hauek onestea, honela:

- Partzialki onesten dira 10. artikuluari buruzko alegazioak, honela:

Onetsi egiten da 1. Maila edo kontaktuzko mailari buruzko alegazioa, "dantza" terminoaren ordez "mugimendua" terminoa jartzeari buruzkoa, eta honela idatzita geratzen da:

1 maila edo kontaktuzko maila, 4-7 urteko ikasleentzat, gaitasun-mailaren mugarik gabe. Haurren nortasunaren garapen harmonikoa bultzatuko du, irakaslearekiko eta gainerako ikaskideekiko elkarreaginaren bidez, gorpuzt jardueraren eta zentzumenen bidez. Bere buruaren kontzientzia hartzen du barneko harmonian dagoen izaki gisa, eta gainerako pertsonekin eta bere inguruarekin. Pixkanaka, bost urtetik aurrera, musika eta mugimenduko jarduera espezifikagoekin harremanetan jarriko da, 2. mailara sartzean bere gustuekin eta edukierarekin ondoen egokitzen den espezialitatean hasteko aukera har dezan.

Onetsi egiten da 3. maila edo espezialitatea finkatzeari buruzko alegazioa, "dantza" terminoa kentzeari buruzkoa, eta honela idatzita geratzen da

- 3. maila edo espezialitatea finkatzea. Aldez aurreko ezagutzak izanik, musikaren praktika artistikoan sakondu nahi duen edonori zuzendua Instrumentu-interpretazioan edo kantuan lortu beharreko gaitasuna eskolako taldeetan parte hartzeko beharrezkoa dena izango da, multzoaren kalitateari lagunduko dioten segurtasun- eta menderatze-balioak emanez. Era berean, gai izango da banakako jardueretan eta hainbat mailatako interpretazio-taldeetan parte hartzeko, eskuratutako ezagupenen eta prestakuntza-maila honen arabera.

- Onetsi egiten da 9.5 artikuluari buruzko alegazioa, "Araubide Bereziko Irakaskuntza Arauetan" ordez "Musikaren Irakaskuntza Arauetan" terminoa jartzeari buruzkoa, eta honela idatzita geratzen da:

5. Beren gaitasun eta interesagatik Musikaren Irakaskuntza Arauetan sartu nahi duten ikasleak orientatzea eta prestatzea.

- Onetsi egiten da 19. artikulua azken paragrafoari buruzko alegazioa, eta honela idatzita geratzen da:

Ahal den neurrian, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izango du.

2.- Ezestea MIRIAM ULANGA ELORZek egindako gainontzeko alegazioak, 2026ko otsailaren 10ean Hezkuntza eta Kultura Teknikariak eta 2026ko otsailaren 11n Idazkariak egindako txostenetan jasotzen diren arrazoiak direla eta.

3.- Behin betiko onartzea Andoingo Udal Musika Eskolako Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia.

4.- Dagokion iragarkia eta aipatutako Araudiaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udalaren web-orrian argitaratzea.

5.- Erabaki honen berri ematea Miriam Ulanga Elorz andreari, baita Hezkuntza eta Kultura teknikariak eta idazkariak egindako txostenak ere, bidezko errekurtsioak azalduz eta Hezkuntza eta Kultura lansailari.



3. Lanpostu zerrendaren aldaketa.

Lanpostuen zerrenda da Udaleko pertsonal politikarako oinarritzko dokumentua, hori baita Udalak bere barruko egiturak arrazoibideratzeko eta antolatzeko erabiltzen duen tresna, langileria premiak erabakiz, lanpostu bakoitza betetzeko beharrezkoak diren eskakizunak definituz eta lanpostu horiek sailkatuz.

Horrenbestez, lanpostuen zerrendak dinamikoa izan behar duenez eta udal antolaketan planteatzen diren egoera desberdinei erantzun behar dienez, proposamen honen bidez egingo diren aldaketak aurkeztutako eranskinean eta Langileria eta Prebentzioko Administrazio Orokorreko Teknikariaren txostenean zehazten dira.

Ikusirik, Langileria eta Prebentzioko Administrazio Orokorreko Teknikariak 2026/02/11ean egindako txostena.

Hori guztia dela-eta, ordezkari sindikalei entzun ondoren, eta ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Eraentza Batzordeak 2026ko otsailaren 18ko bileran emandako aldeko irizpena.

Fondón jaunak, Langileria, Antolaketa eta Barne Eraentzako Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, ekartzen dugun proposamena, aldaketa tekniko bati dagokio, osagarri espezifikoan zenbatekoak eguneratzea da, Estatuaren Aurrekontu Orokorrak ezarritako soldata igoerak aplikatu ondoren sortutako balio berrietara egokitzeko.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, arratsalde on. Con respecto a lo comentado por el señor Fondón, con la modificación no tenemos ningún inconveniente, el Grupo Municipal Socialista va a votar a favor, pero sí que queríamos trasladar, la sensación con la que nos quedamos desde el debate que se dio en este punto, en la Comisión de Antolaketa. Una sensación de que este gobierno municipal está sumido en la improvisación y el desgobierno. Y me explico.

“Bueno, más bien diría desorganización. En esa comisión ustedes ya están hablando sobre la amortización de puestos de trabajo sin un plan específico, sin una tarea hecha, e incluso en esa misma comisión desde el Departamento de Personal nos trasladan que han empezado los trámites para actualizar las funciones de los puestos de trabajo, que con la cual no estamos en contra, ni muchísimo menos, consideramos que es una labor necesaria para tener actualizadas las funciones de los puestos de trabajo y prestar mejor servicio a la ciudadanía, pero resulta llamativo que sin ese trabajo previamente hecho estén ustedes hablando ya de amortizaciones de puestos de trabajo.

“En cuanto a la improvisación, hace un año más o menos, en esta misma RPT aprobamos la plaza de de técnico de jardinería, con el firme objetivo que ustedes mismos lo defendieron, de publicar el servicio de jardinería. Pues bien, en esa comisión ustedes ya nos han trasladado que no ven factible la posibilidad de poner en marcha esa publicación del servicio por cuestiones económicas.

“Entiendo que son cuestiones económicas que ustedes empiezan a ver ya, cuando ya tenían que estar viéndolas desde hace casi un año, cuando digamos la situación económica empezó a complicarse, vamos a decirlo de esa manera, en este Ayuntamiento. En definitiva, lo que queremos plasmar es que falta rigor en la organización, y sobre todo cuando uno marca objetivos, también tiene que marcar los pasos y las acciones a llevar a cabo para la consecución de esos objetivos. Eskerrik asko.”

Berriro ere, Fondón jaunak hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Bueno, nik, barkatu uste dut, esan duzunaz gain ere esan, genituela amortizatzeko zeuden lanpostuak eta aurreikusten genituenak legealdi hasieran, eta zergatikan orain ez dira aurreikusten legealdi amaieran egiteko, ba aldaketak egon direlako eta ondo esan duzun bezela, lorezaintzako lanpostu horiek publikatzeko zeudenak, ekonomikoaz gain ere, legealdi hasieran sail hori edo bueno, azpikontrata horrek egiten zituen lanak eta gaur egun egiten dituenak eta herritarrengatik jasotzen genituen kexak eta gaur egun jasotzen direnak asko aldatu dira, eta horregatik ikusi dugu ba, udaletxe guztiko lanpostu ezberdinetan eta sail ezberdinetan, orain hasitako lan eta funtzioen azterketarekin ekarriko dutela, ikusiko dugu, non egin beharko diren aldaketak eta non ez, ta non sortu beharko diren lanpostu berriak eta non



ez eta non errefortzatu beharko den eta non ez. Hori ere esan genuen.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno nik ere honen inguruan hitz egin nahi nuen. Batzordean, aipatu nizuen, oker ez banago, alderdi guztiek, baiezkoa eman zenioten osagarrien modifikazio honi, gure taldeak izan ezik, gu abstenitu egin ginen eta justifikatu nuen zergaitikan, justifikatu genuen konplementoen eguneraketa edo osagarrien eguneraketen inguruan ez geneukala ezer kontrakotasunik, baina gai hau mahai gainean jarri genuen, RPT honen balizkotasuna edo errealismoa zenbaterainokoa zen.

“Besteak beste, aipatu genituen gauza ezberdinak. Aipatu da amortaziazioen gaia, aipatu da udal honek aurreko mendeko egitura zahar bat esango dut daukala, eta saiakerak egin diran arren batzordeak eta barne funtzionamendua aldatzeko, gaur gaurkoz, oraindik ere aurreko mendeko eskema zahar batekin, lan eskema zahar batekin jarraitzen dugula.

“Eta horrek bai eskatzen duela nolabaiteko erreflexio bat. Badira gainera programa ezberdinak, RPT honetan azaltzen ez direnak, ez direlako estrukturalak diren lanpostuak, baina bai iriki behar dugu gogoeta bat, zenbateraino programa hauek, lan programa hauek duten hasiera bat, bukaera bat, aldi baterakoak dira, baina kasu honetan ari dira kubritzen estrukturalak edo behin betikoak uste degu guk, izan daitezkeen behar batzuk, gabezi batzuk, zergatik? Erakunde honek sortu zirenean, orain dela urte batzuk zituelako behar batzuk eta lanpostu batzuk ezarri zirelako eta behar horiek, gizartea aldatzen den bezala, aldatu dira eta gaur gaurkoz ari gara, ez dut esango partxe, baina ari gera aldi baterako soluzioak bilatzen baina gogoeta bat egin beharko da. Aizue, behar da hau, behar da bestea. Funtzio hauek dagoeneko beharrezko dira? ez? eta ari naiz hitz egiten gizartean digitalizazio prozesuak daudelako, notifikazio prozesuak daudelako, behar klimatikoak ditugulako, gizarte laguntza alorrean iraultza badatorrelako, alegia, gizartea aldatzen ari da, udalak eta administrazioak eraldatzen ari dira eta gure lan eskema da betikoa.

“Ordun horrek eskatzen du erreflexio bat. Orduan gu horregatik abstenitzen ginen. Kritikotasuna adierazteko eta nolabait ere mugiarazteko. Eta nolabait, udalaren partetik ere erreflexioa martxan jartzeko. Amortizazioak datoz, baina gero baita ere aurrekolaren gaia hor daukagu, Lanbide Heziketako egokitzapenak, alegia, udal honek epe motzean izango ditu erronka, lan erronka, lan eraldaketa ezberdinak. Orduan bai nahi duguna da erreflexio errealista bat martxan jartzea, egungo errealdadera hobeto egokitzen dena. Besteak beste, konpromezua hartu zen batzordean, Antolaketa Batzordean, bi hilabeteko epean sailburuarekin edo saileko zuzendariekin erreflexio bat irikiko zela. Ba funtzio horiek berrikusteko, abiapuntu bat da. Uste dugu berrikuspen hori egitea beharrezkoa dela, globalean aztertzeo udaletxe honek zer behar izango dituen aurrera begira, zein ez, eta ez inprobisatzeko, ezin duelako askotan ere tenporalak diran gauza horiek behin betikotu edo ez, edo alegia, funtzio batzuk orain dela 20 urte beharrezkoak baziren, edo gaur ez. O sea, era digital honetan, telematiko honetan, dena online den honetan, pues, horrek ekarri ditu administrazioan eraldaketa batzuk, edo adibidez, erronka klimatiko energetikoak, gaur egunean udaletxe batek bere energia kontsumoa murriztu behar ditu, aldaketa klimatikoentzako.... O sea, ja dira berdin garai bateko beharrak eta gaur egungoak, zaintza alorrean ere behin baino gehiagotan hitz egin dugu...”

“Etxez etxeko arreta zerbitzua gero eta konplexuagoa, anitzagoa, sakonagoa esango dut dala, eta hazten ari dan gizartea geroz eta zaharragoa da, geroz eta baliabide gehiago behar ditugu, esparru horietara, ez? Orduan, guk ez dugu esango, hau behar da, bestea behar da, nahi duguna da eztabaida iriki eta nolabait ere prozesu hau iriki, bi hilabeteko epean. Funtzioen berrikuspena hastea albiste ona da, baina klaro, jakin genuen baita ere txiripaz, gaia neronek atera nuelako batzordean. Orduan, bueno, kritikotasun hortatik abstentzioa emango dugu, ez konplementuen egokitzapenaren kontra gaudelako, baina bai nahi degulako nolabait bide berri hau, gutxienez berrikuspen bide bat martxan jartzea.”

Fondón jaunak, erantzuten du:

“Bai. Ezer gutxi esateko, guztiz ados esan duzuen guztiarekin. Uste dut batzordean hitz egin genuen eta ere komentatu genuen zuekin landu nahi genuen, eta bueno, ba horretan gaude eta hori, ba, lan hau, zuk esan duzun bezala, hasi gera pixka bat saileko buruekin eta bueno, ba informazio guztia eta pasako dugu, elkartuko gera honetaz hitz egiteko.”



Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozkatu du, eta udalbatzak, gehiengoz, alkatearen eta EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ/PNV taldeko zinegotzien abstentzioarekin, honako hau erabaki du:

- 1.- Onartzea Lanpostuen Zerrendaren eta Plantila Organikoaren aldaketa.
- 2.- Plantila Organikoaren eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketa argitara ematea GAOn, bat etorritz Funtzio Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeko 45. artikuluan xedatuarekin.

4. Gastuak judizioz kanpo aitortzeko proposamena..

Kontuan hartuz, oro har badakigu sektore publikoa osatzen duten administrazio desberdinen artean, tokiko administrazioa dela herritarrengandik gertuen dagoena eta, hortaz, administrazio honetara zuzentzen dituztela, lehenik eta behin, beren eskaerak.

Tokiko Administrazioak herritarrek eskatzen duten arintasunera eta eraginkortasunera egokitu behar du bere jarduna. Horregatik, zenbaitetan, eta herritarrei erantzuteko, jarduera administratiboa ez da doitzen, zorrotz-zorrotz, berez zurruna den prozedura legezkoa.

Besteak beste, zentzu horretan, aurreko ekitaldian, ondasunen hornidurari eta zerbitzuen prestazioari dagozkien aurrekontuko zuzkidurarik gabeko gastuak egin dira, guztiak udal zerbitzu desberdinen garapen arrunterako eta Udalak kudeatutako zerbitzuen prestaziorako behar-beharrezkoak eta ezinbestekoak. Eta baita faktura batzuk erregistratu dira ere epez kanpo eta arauak kontuan izan gabe.

Nahiz eta, prozedura ez delako jarraitu, Udala aipatutako gastuak ordaintzera behartuta dago, horiek udal aurrekontura egotzi ondoren. Legegileak berak, ezinbesteko zerbitzuak emateko beharrezkoak diren baina nolabait ere “irregularrak” diren jarduera horiek ematen direla jakinik, aipatu gastuak dagokion ekitaldiko aurrekontura egozteko aukera aurre ikusten du. Egozpen hori, hasiera batean, debekatuta dago, aurrekontuaren urtarokotasun printzipioari jarraiki, baina kredituen judizioz kanpoko aitorten espedientearen bidez izapidetzea ahalbidetzen da.

Kontuan izanik administrazioarekiko kaltetzea saihesteko eta, hortaz, administrazioaren aberaste bidegabe edo arrazoigabea saihesteko, ezinbestekoa eta derrigorrezkoa dela egindako gastu horiek ordaintzea; kontuan izanik, halaber, gastuak egungo ekitaldira egozteak.

Kontu hartzaileak (2026/0004 erref.) egindako txostena ikusi ondoren

Ikusirik, Antolaketa Batzordearen 2026.02.19 datako irizpena.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gaur hona ekartzen ditugun gastu hauek dira 2025ean egin ziren gastuak, baina arrazoi ezberdinengatik, 2025ean ordaindu ez direnak. Eta orduan Plenoak eman behar die onespena. Nolabait esan, hiru multzotan edo sailkatzen dira gaur hona ekartzen ditugun gastu hauek, eta saiatuko naiz pixka bat modu ulerkorrean azaltzen.

“Batetik, lehenengo multzoan egongo lirateke, bueno, kontratua amaituta daukaten lizitazioak edo kontratu horretan zegoen diru kopurua baina haundiagoko faktura bat dagoena, kasu honetan esan behar dugu. Alde batetik etxez etxeko zerbitzuan faktura bat dagoela, 2025ean ez geneukalako, kontratua amaituta zegoelako, baina gaur gaurkoz, 2026an kontratu hori esleitzeko prozesua martxan dago. Igogailuen faktura bat ere badago baita ere hor kontratua amaitzen zalako eta 2026an zentralak prozedura jada abian jarri du eta hori ere bideratu dugu, eta gero dago kiroletako faktura bat, non maiatza bitartean, daukagu kopuru bat, lizitazioaren barruan kopuru hori ez da aldatzen, baina nolabait esan ikasturteko kopurua berdina den arren, 2025ean kiroldegiak kudeatzen duen enpresak egin dituen lanorduek gehiago izan direnez, ba faktura hori dator gaur hona onespena ekartzera, baina esaten dudana bezala, lizitazioko kopurua ezta aldatzen, baizik eta nolabait esan, 2025 urteari dagokiona izango da gehiago eta trukean 2026ari dagokiona izango da gutxiago.

“Bigarren multzoan egongo lirateke epez kanpo etorri diren fakturak, askotan dira herriko dendari edo enpresa txikiak ba non faktura epe barruan zeatu beharrean beranduago ekarri dutenak. Eta azkenik, egongo dira hirugarren multzoan, hor bai pixka bat zerbitzuetan egon dela, nolabait esan, behin partida amaituta, behar zutelako, joan dira erabilpen ezberdinak egiten edo gauza ezberdinak erosten, eta pixka bat bai egin dugula departamentuen azterketa bat ba berriro horrelakorik gertatu ez dadin.



“Horiek dira hiru multzoak, horiek dira pixka bat 2025ean burututako lanak edo egindako erosketak, gaur hona ekartzen ditugunak onartzera.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, bueno, lo que comentamos en la comisión. Estamos hablando de un importe total de más de 250.000 euros que tenemos que pagar en facturas, pues bueno que no han venido, como tenían que haber venido por diferentes motivos, pero la cosa es que no han venido como tenían que venir.”

“Es verdad que las facturas más gordas son de contratos que deberían haber estado hace tiempo licitados de nuevo. Y esta es la situación, y al final, pues lo que ocurre es que los proveedores que han dado sus servicios aquí van a cobrar tarde. Y nosotros, obviamente vamos a votar que sí, porque es un servicio que se ha dado y que hay que pagar, pero sí que pedimos que se haga un trabajo con los diferentes departamentos, tanto desde el liderazgo político vuestro como con los técnicos, para intentar ir reduciendo este importe pues que se suele dar, pero que entendemos que hay que ir reduciéndolo más si cabe con la situación económica en la que vamos a estar dentro de muy poco en este ayuntamiento.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, aurreko ekitaldian egindako gastuak, bere garaian, besteak beste, aurrekontuko diru-izendapenik ez izateagatik, kontraturik gabe eta epez kanpo; egotzi ez zirenak, aurrekontu arruntera egozteko KREDITUAK AURKEZTEKO AURKEZTEKO espedientearen instrukzioa egitea. Zenbatekoa, guztira, 250.468,59.-eurokoa da.

5. 2025.12.31ko Kontu-hartzailearen txostena.

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, hau dakizuen bezela, kontu hartzaileak, hiru hilabetero, txosten bat egiten du udalaren egoeraren inguruan. Saiatuko naiz gako nagusiak edo ematen.

“Batetik, txosten horretan ageri da fakturak ordaintzeko baimendutako epea 30 eguneko den arren, gu 33,32 egunetara ari gera ordaintzen. Beraz, legeak ezartzen duena baino 3,32 egun beranduago ari gara batz beste faktura hoiek ordaintzen.

“Bestetik, aipamena egiten du gastu recurrenteei edo. Eta hor, bueno, daude kontratu ezberdinak, lehen esan dudan bezela, adibidez igogailuarena eta abar, jada Zentralarekin jarri ditugunak martxan eta horrekin ulertzen dugu hartzen dugula ba bueno, daukagun gabezi horrekin amaitzeko norabidea.

“Eta baita ere, bueno, lizitazioei dagokienez, bai, etxex etxekoa, bai Basterokoa, aseguruena, horiek jada martxan dauden prozedurak dira, eta geldituko litzatekeena da Eguneko Zentroa, eguneko arreta zerbitzua. Hoiek faltako lirateke pixka bat, hor ere daukagun gabezi hori estali ahal izateko.

“Azkenik, 2025ean kiroldegia, kiroldegiaren, handitzea edo bigarrenko pista egin ahal izateko eta zerbitzutako pabeloia egin ahal izateko mailegu bat eskatu genuen. Mailegu hori, eskatu genuenez 2026an, plan ekonomiko finantziero bat egin beharko dugu. Hori egiten da behin likidazioa, 2025eko likidazioa egin ostean, likidazio hori martxoaren amaierarako, martxoaren 30erako egiten da. Eta behin, martxoaren 30ean, likidazioa eskuratu ostean, udal honek hilabete bateko epea dauka plan ekonomiko finantziero hori egin ahal izateko.

“Dakizuen bezela, bueno, gaur egun Kontuhartzailetzan ez daukagu egoera xamurra, baina gu bai ari gara, likidazio horren baitan egon daitekeen plan ekonomiko finantziero horretan lanean. Eta gure asmoa da epe motzean zuekin elkarbanatzea, ba bueno plan hori, ahalik eta babes haundiena eta guztien ekarpenekin egin dadin.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak hartu du



hitza, honakoa esateko:

“En el informe de la interventora, en el informe trimestral, como venimos diciendo últimamente sigue habiendo contratos que hay que sacar, que vamos tarde, y de ahí que también se paguen tarde, como en el punto anterior.

“Nos preocupa mucho lo que acaba de comentar del Plan Económico Financiero, porque no es algo que lo sepamos desde hoy que nos han pasado el informe trimestral, hace unos días, lo sabemos desde que se decidisteis pedir el préstamo, no solamente para el polideportivo, sino también para el pabellón de servicios, que íbamos a estar en esta situación, que íbamos a estar obligados a tener el plan económico financiero, en el que estarán y deben de estar incluidas medidas estructurales con un impacto muy fuerte, que ya las estamos viendo más o menos. Entonces, nos preocupa que se hable de un mes, de dos meses, en abril, que lo tengamos que tener que traer, aprobar aquí, y que desde el equipo de gobierno todavía no nos hayáis pasado ni un borrador.

“Lo dijimos cuando se aprobó, cuando aprobasteis el préstamo, que faltaba ese borrador, no se nos ha pasado, seguimos sin conocerlas, y creemos que falta tiempo, falta tiempo, y os emplazamos a que nos paséis ese borrador, que podamos debatirlas y que podamos ver entre todos qué medidas, porque no van a afectar solamente a un año, sino a los años venideros y, por ende, al servicio que va a tener que dar este ayuntamiento a la ciudadanía.”

Alkate jaunak, hartu du hitza eta honakoa erantzun du:

“Bueno, esan bezela, gu horretan lanean ari gara eta gure helburua da zuekin ahalik eta azkarren partekatzea dokumentu horiek.”

6. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren 50. urteurrenari buruzko mozioa, Hurria Sahara elkarteak aurkeztua.

Idazkari jaunak, hartu du hitza, honakoa azaltzeko:

“Idazkeran akats bat dago eta zuzenketa bat egin beharra, Bozeramaile Batzordean erabaki zen adierazpen instituzionala beharrean mozioa agertzea baino gero ez zan egoki jaso gai zerrendan, beraz, puntu honetan, 50. urteurrenari buruzko mozioa, Hurria Sahara elkarteak aurkeztua.

“Besteetan esan bezela, streaming bitartez ari gea emititzen eta ez baldin badezue kontrakoik esaten, ulertzen da baimena ematen dezutela.”

Jarrian, Hurria Sahara elkarteko ordezkariak hartu du hitza mozioa irakurtzeko, honakoa diona:

“Bueno, arratsalde on guztioi. Y previo a la lectura de la moción, la asociación Urria Sahara quiere mostrar sus condolencias a todo el movimiento solidario con el pueblo saharauí y en especial a la familia del joven Mohamed Salouk, quien perdió su vida en el mayor cementerio que tiene Europa, el mar Mediterráneo. Aquí le esperaba una familia, unos amigos y un pueblo. Su objetivo, poder labrarse un futuro. Hurria Sahara quiere mostrar su rabia e impotencia al constatar la grave situación en la que viven miles de saharauis en los campamentos de Tinduf.

“Esto es lo que empuja a jóvenes saharauis a arriesgar su vida en rutas migratorias peligrosas como otros muchos jóvenes del mundo. Todo ello no sería necesario si se cumpliera la resolución de la ONU y este pueblo, ejemplo de resistencia y dignidad, pudiera celebrar el referéndum de autodeterminación y regresar a su país, el Sáhara Occidental, por un Sahara libre que, bueno, pues, nos dejará libre.

“Con motivo del 50º aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática (RASD):

“Guiado por los propósitos y principios de la Carta de las Naciones Unidas, en particular disposiciones de sus Artículos 1 y 55, que consagran el derecho de los pueblos a la libre determinación,

“Guiado también por las disposiciones del artículo 1º del Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales y del artículo 1º del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, en los que se



afirma que todos los pueblos tienen derecho a la libre determinación,

“Guiado además por la Declaración sobre la Concesión de la Independencia a los Países Pueblos Coloniales, en particular su artículo 1, y por las disposiciones de la Declaración el Programa de Acción de Viena, aprobados por la Conferencia Mundial de Derechos Humanos, y especialmente la parte I, párrafos 2 y 3, relativos al derecho de libre determinación de todos los pueblos, en particular los sometidos a ocupación extranjera

“Reafirmando el derecho a la libre determinación que asiste al pueblo saharauí poniendo de relieve que esta norma imperativa de derecho internacional es un requisito fundamental para alcanzar una paz justa, duradera y general en la región,

“Reafirmando la legitimidad de la lucha del pueblo saharauí por la independencia, integridad territorial, la unidad nacional y la liberación de la dominación colonial extranjera de conformidad con el derecho internacional,

“Afirmado la aplicabilidad del principio de soberanía permanente sobre los recursos naturales como componente constitutivo del derecho a la libre determinación, recordando que el mantenimiento de un muro ilegal que divide el territorio y protege explotación y expolio por parte de Marruecos de los recursos naturales en el Sáhara Occidental ocupado es incompatible con las obligaciones que le incumben en virtud de derecho internacional,

“Lamentando que los Estados e instituciones que entablan relaciones económicas comerciales con Marruecos en lo que respecta a los territorios ocupados del Sáhara Occidental contribuyan de ese modo al expolio ilegal de recursos naturales y a denegación del derecho del pueblo saharauí a la libre determinación,

“Expresando preocupación por el hecho de que algunas empresas directa e indirectamente hayan permitido y facilitado la ocupación marroquí del territorio del Sáhara Occidental y se hayan beneficiado de ello.

“Deplorando la difícil situación de la población saharauí refugiada y reforzando nuestro compromiso con la cooperación y la acción humanitaria con perspectiva de género, para atender a la población saharauí obligada a vivir en el refugio.

“Deplorando las violaciones generalizadas de los derechos humanos que se llevan a cabo con total impunidad en los territorios ocupados del Sahara Occidental.

1. “Reafirma el derecho inalienable, permanente e incondicional del pueblo saharauí a la libre determinación, incluido su derecho a vivir en libertad, justicia y dignidad, y su derecho a un estado independiente.

2. “Confirma que el derecho del pueblo saharauí a la soberanía permanente sobre sus riquezas y recursos naturales debe ejercerse en beneficio de su desarrollo nacional y del bienestar del pueblo saharauí, y para hacer efectivo su derecho a la libre determinación.

3. “Exhorta a Marruecos, la potencia ocupante, a que ponga fin de inmediato a su presencia ilegal en el territorio del Sáhara Occidental ocupado, que constituye un hecho ilícito de carácter continuado, que genera su responsabilidad internacional, y a que revoque y subsane todo impedimento a la independencia política, la soberanía y la integridad territorial de la República Árabe Saharaui democrática y pide que se pongan fin a todas las políticas actuales de hostigamiento, amenaza, intimidación y represalia, privación de libertad y expulsión contra las y los defensores de derechos humanos y los actores de la sociedad civil que abogan pacíficamente por los derechos del pueblo saharauí.

4. “Expresa profunda preocupación por las condiciones de vida de los presos políticos saharauís en las cárceles marroquíes. Y exhorta a Marruecos a que ponga en libertad inmediatamente a todas las personas saharauís recluidas en violación del derecho internacional.

5. “Exhorta al Estado español y a la Unión Europea a respetar sus obligaciones de no reconocimiento, no ayuda y no asistencia con respecto a las violaciones graves de las normas imperativas de derecho internacional cometidas por Marruecos, en particular la prohibición de adquirir territorio por la fuerza a fin de asegurar el ejercicio del derecho a la libre determinación pueblo saharauí.

6. “Insta al Estado español y a la Unión Europea a que adopten las medidas necesarias para



promover la efectividad del derecho a la libre determinación del pueblo saharauí y presten asistencia a las Naciones Unidas y a la Misión de Naciones Unidas para el referéndum del Sahara Occidental (MINURSO) con tal fin,

7. “Insta al Estado español y a la Unión Europea a que adopten las medidas necesarias para garantizar el cumplimiento de las sentencias del Tribunal de Justicia de la Unión Europea de octubre del 24, en las que, a la luz de la jurisprudencia, y sobre la base de los principios del derecho de autodeterminación y del efecto relativo a los tratados, fija con claridad que los acuerdos comerciales en materia de pesca y de productos agrícolas a los que el pueblo saharauí, a los que el pueblo del Sáhara Occidental no prestó consentimiento, se celebraron, vulnerando los principios de autodeterminación y del efecto relativo de los tratados.

